



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko martxoaren 25ekoa, Durangoko Udalaren erantzunik eta jarduerarik ezari buruzkoa, zanga baten espazio publikoaren okupazioa eta osasungarritasunik eza dela-eta egindako salaketen aurrean.**

### Aurrekariak

Durangoko Alde Zaharreko auzotarren elkarteak erakunde honetara jo du kexa bat aurkezteko Durangoko Udalak ez baitu inolako jarduerarik abian jarri Artekaleko atzealdean kokatuta dagoen zangaren espazio publikoa okupatzeagatik jarritako salaketen aurrean.

Elkarte horrek adierazi digu, askotan aurkeztu dituela kexak gai honen inguruan eta, Durangoko Udalak ostalariei zanga okupatuta daukatela esan eta euren gauzak ateratzeko eskatu dien arren, epeak aurrera doaz eta egoerak bere horretan jarraitzen du edo, are gehiago, okerrera doa. Udaleko ordenantzek adierazten dutenaren arabera, hori espazio publikoa da, beraz, eremu horiei gainontzeko kaleei ematen zaien tratamendu bera aplikatu beharko litzaieke, legez kanpoko okupazioa ahalbidetu gabe, baimenik eduki ezean estali gabe, etab. Bestalde, gune hori osasungaitza da eta udal zerbitzuek ez dute beste kaleetan egiten duten garbiketa egiten. Gainera, usoek egoera are gehiago okertu dute, tokia zirinekin zikintzen baitute.

Kexa behin onartuta, Durangoko Udalari eskatu genion, 2009ko azaroaren 25eko idazkiaren bitartez, kasu horren berri eman ziezagun, planteatutako arazoa aztertu ahal izateko beharrezkoa zen dokumentazioa bidaliz.

Gure informazio eskaerari erantzun ez ziotenez, 2010eko urtarrilaren 13an errekerimendu bat bidali genuen eta, ondoren, zenbait kudeaketa egin genituen telefono bidez. Edonola ere, ez genuen emaitza positiborik lortu, dagokion erantzuna jasoko genuela baieztatu ziguten arren. Gure eskaera errepikatu egin genuen 2010eko azaroaren 25eko ohartarazpenaren bidez eta berriro ere hainbat kudeaketa burutu genituen telefonoz udaleko idazkariarekin baina horiek ere emaitzarik gabekoak izan ziren. Hala eta guztiz ere, hainbat bider adierazi ziguten erantzuna berehala jasoko genuela.

Hori guztia ikusita, epaitzeko ditugun parametroekin bat etorri eta eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:

### Gogoetak

1. Abiapuntu gisa, gogorarazi behar dugu herri-administrazioak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berriaz erantzutera. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkeztzen dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.





Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Herritar horien erreklamazioen aurrean instrukzioko izapide egokiak ez egitea eta administrazioaren erantzunik ez izatea ez da administrazioaren funtzionamendu normala, hortaz, Ararteko erakundeak hala adierazi behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Aitzitik, artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea administrazio txartzat jo behar da eta administrazioaren jarduna zuzentzen duten printzipio orokorren ez-betetzearen adierazle da, kontuan hartuta jardun horrek, lege aginduz, herritarren zerbitzura egon behar duela (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa -HAAJAPEL-).

2. Horrez gain, adierazi behar dugu Durangoko Udala erakunde honekin lankidetzan aritzeko prest egon ez dela. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -Ararteko erakunde sortu eta arautzekoak- 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan aipatu dugunaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak.
3. Kexak planteatzen duen gaiaren mamiari dagokionez, kontua herri-administrazioen ondarea erregulatzen duen araudiaren barruan kokatu behar dugu.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 28. artikulua ondare publikoa babestu eta defendatzeko betebeharra xedatzen du. Aipatu xederako, herri-administrazioek behar bezala babestuko dituzte administraziook osatzen dituzten ondasunak eta eskubideak, erregistroko inskripzioa eskuratuko dute eta horretarako bidezkoak diren administrazio ahalmenak eta ekintza judizialak baliatuko dituzte.

Legeak ezartzen dituen ahalmenen eta eskumenen artean, administrazioek haren ondasuna osatzen duten ondasunen eta eskubideen gainean bidegabe galdutako edukitza berreskuratzeko ahalmena daukate. Berreskuratzeko ekintza





hori edonoiz gauzatu ahal izango da (55. artikulua), hizpide izandako ondasunak eta eskubideak jabari publikotzat jotzen badira.

Halaber, tokiko araubidearen berriazko araudiak gaia erregulatzen du eta, zehazki, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiak –ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua- udalek haien ondarea defendatzeko dituzten ahalmenak xedatzen ditu.

Hortaz, Durangoko Udalak erakunde erreklamatzailak egindako eskaerari behar bezalako erantzuna emateko duen eginbeharra ez betetzeaz gain, alde batera utzi ditu ondare publikoa defendatzeari dagokionez dituen betebeharrak. Izan ere, guk dakigunaren arabera eta erreklamazioa aurkeztu duen elkarteak salatzen duenarekin bat eginez, partikular batek ondasun publiko baten inguruan egindako legez kontrako usurpatzea argitzeko eta horren inguruan ondorioak ezartzeko jardunik ez du hasi.

Horri dagokionez, udalaren web orrian eskuragarri dagoen informazioari jarraiki, Durangoko Alde Zaharra birgaitzeko planaren testu bateginak, dirudienez oraindik indarrean ez dagoenak, zehazten du zangak erabilera eta jabari publikoak direla.

4. Azkenik, erreklamazioa aurkeztu duen elkarteak salatutako osasungarritasunik ezak eta garbiketarik ezak sortzen dituzten arazoek islatzen dute Durangoko Udalaren garbiketaren gaineko ordenantza ez dela bete. Ordenantza horrek, bide publikoari buruzko 6. artikuluan hain zuzen ere, zera zehazten du:

*“Garbiketari dagokionez, honakoa hartuko litzateke bide publikotzat: herritarrentzat diren erabilera publikodun kaleak, etorbideak, espaloiak, bulebarrak, ibilbideak, plazak, parkeak, lorategia duten gunek, bide-tunelak, eta gainontzeko ondasunak. Era berean, Durangoko uri historikoaren herri-jabegokoak diren karkabak ere hartuko dira bide publikotzat.”*

Ondorioz, udalarentzat derrigorrezkoa da bide garbiketa eremu horietan ere gauzatzea, udaleko araudiak berak bide publikotzat jotzen baititu.

Erreklamazioak hizpide duen gaia eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak ikusirik, ondorio hauek helarazten dizkizugu:

#### Ondorioak

1. Azaldutako gogoeten harira, amaitzeko, esan beharra dugu Durangoko Udalak Durangoko Alde Zaharreko auzotarren elkarteak aurkeztu duen eskaerari erantzun arrazoitua emateko beharra daukala, zangak legez kanpo okupatzea galarazteko eta osasungarritasun egoera egokian mantentzeko.





2. Bestalde, salatu behar dugu Durangoko Udalak ez duela ezein unetan Ararteko erakundearekin elkarlanean aritzeko jarrerarik izan eta, hala, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko goi komisario den aldetik, administrazioaren legez kanpoko ekintzak edo ekintza bidegabeak zuzentzen saiatzeko daukan betebeharra eragotzi du.
3. Azkenik, azpimarratu behar dugu larria dela udala lankidetzan aritzeko prest egon ez izana eta, ondorioz, zioen idazki honetan gure esku-hartzea amaitutzat eman behar dugula, eragindakoei mahaigaineratutako kexaren inguruko arazoizko erantzuna eman gabe.

